

ORDIZIA ▶ GIZARTEA

# Goierriko Kastak Oianguri buruzko lanak argitaratu ditu

Oiangu Bizirik plataformarekin bat eginez, eskualdeko hainbat idazlek eta Pello Ramirezek errezitaldia eman dute



Pello Ramirez, Juan Mari Apaolaza eta Idurre Eskisabel, Barrena kultur etxean, atzo. MAIDER DEL OLMO

MAIDER DEL OLMO

Hemezortzi idazlek eta Pello Ramirez musikariak parte hartu zuten, atzo, Goierriko Kastaren errezitaldian, Oiangu gai hartuta. Goierriko Kasta ekimenean parte hartzen duten idazleek ekarpena egin diote Oiangu Publikoa eta Bizirik plataformari.

«Oianguko proiektu elitista eta pribatuaren aurka», euren testuekin (poesia, prosa, narrazio, bertso, artikulua... espreski idatziak) errezitaldia prestatu dute.

Liburuxka ere kaleratu dute lanekin, 20 orritako aldizkaria, eta plataformaren web orrian zintzilikatu dute: [www.oiangubizirik.com](http://www.oiangubizirik.com). Idazlanak Oiangu-

ko proiektuaren ingurukoak dira: «Desarrollismoa, naturaren txikizioa, AHT, bizitza burgesua, hezkuntza, ingurumena...». Goierriko Kastako idazleek arabera, «Oiangu (Oihan-gu) geu gara», eta hartu duten leloa, berriz: *Ez gaude garapenaren aurka itsu, desarrollismoa itsuaren kontra bai-zik*. Ekimenaren sustatzaileen arabera, «idazlan ederrak lortu dira oraingoan ere, beren artean sintonia dutenak, testu arteko inter-erlazio politak, bilatu gabeko intertestualitatea, kausalitatea dirudi...».

Agerkariaren 1.000 ale kaleratu dituzte, eta eskuragai daude liburutegietan, liburutegietan eta KZguneetan. Aldizkarian idazle hauen

testuak daude: Joxanton Artze, Juan Mari Apaolaza, Jon Arano, Idurre Eskisabel, Garbiñe Etxaniz, Irati eta Ekaitz Goikoe-txea, Koldo Goitia, Tere Irastortza, Izaskun Jauregi, Xabier Mendiguren Elizegi, Arantza Urbietta, Iker Zaldua, Koldo Zubeldia, Patxi Zubizarreta, Oier Zurutuza eta Xabier Azurmen-di.

Goierriko Kastak eskualdeko hogeitik gora idazle biltzen ditu, eta euren hitza argitaratu ematen du.

BEASAIN ▶

## San Inazioaren ibilbidea egingo dute Aizkorrikoek

Aizkorri mendi elkartek Irunberri-Ardanatz ibilaldia egingo du igandean; *San Inazioaren ibilbidea* deitua. Goizeko 07:30ean aterako dira autobusez. Izena emateko aukera gaur dago. Ibilaldira joan nahi dutenek elkartera jo behar dute, arratsaldeko 19:30etik 20:00etara. Bestalde, gaur Fermin Pedrosarekin arratsaldeko 20:00etan diapositiba emanaldia izango da.

ORDIZIA ▶ POLITIKA

# Zein da bakerako bidea?

Begoña Errazti EAko lehendakariak egoera «atzerazinezkoa» azaldu du Barrenan eskainitako hitzaldian

M. DEL OLMO

**B**akea eta normalizazio politikoa posible dira, Eusko Alkartasunaren arabera. Baina bidea zaila izango dela uste du Begoña Errazti alderdiko lehendakariak. EAK bakea defendituko duela dio: «Euskal gizarteak ez dio barkatuko prozesuaren dinamika positiboa zapuzten duenari».

Erraztik hitzaldia eskaini zuen herenegun Barrenan. Belen Maiza goierritarrak ere parte hartu zuen saioan. Aretoa jendez bete zen.

EAKo lehendakariaren iritziz atzerazinezko egoeran dago gizartea, balizko bake prozesu baten atarian: «Hala ere, arriskuak hor daude. Bartzuek nahiago dute bake prozesua aurrera ez ateratzea». ETak armak utzi behar dituela esan zuen: «Asko hitz egingen da bake prozesuaz, baina ETA hor dago, eta ezin dugu ahaztu. Hainbat ekimen judizialek ere bakea boikotatu nahi dute».

Autodeterminazio eskubidea EAren lan-ildoetako bat dela azpimarratu zuen: «Konponbide demokratikorako eskubide horren egikaritzak beharrezkoa izango da».

Itxaropenari lekua egin nahi izan zion, baina kontu handiz, eta espektatiba handirik sortu gabe: «Bestela, le-



Maiza eta Errazti. M. DEL OLMO

henago ere pasatu izan den bezala, arriskua dago ezusteko handia hartzeko jendeak gehiegi espero badu», azaldu zuen bake prozesuari buruz.

PPko eta PSOeko arduradunek ere zuzendu zitzaizkien. Euskal gizartearen autodeterminazio eskubidea onartu egin beharko dutela esan zien.

«Bakea eta normalizazio politikoa dira gizarte honen aspaldiko nahiak, eta politikariok horri erantzun egin behar dugu, arduraz eta lehenasunez. Gure betebeharra delako».

GUTUN@K ▶

## Kilometroak

Pena ematen dit hildako gudarien omenezko eskelak *El Correo Español* eta *Diario Vasco*-n ikusteak. Pena ematen dit ikastolen jaien alde kilometroak egiten dituztenak goizero *El Correo Español* eta *Diario Vasco* erosten ikusteak (printzipen argazki eta guzti). Pena ematen dit otsoa artaldean edukita ez dakigulako bere moztaroen azpian zer dagoen ikusten.

Nafarroan oinez egin dituen gudari baten ibilaldia beharbada? Herri urratsen artean Araba euskaraz egin dadin baztertu ditzagun bada ardir moztarotutako otsoak.

INAKI LARRAÑAGA ▶ BEASAIN

www.sagarrotatik.com

SAGARRONDOTIK

06

THE LOQUILLO

CHAMBAO

PAL KELI

SORKUM

MORODO

CELTAZ CORTAS

BERRI TXARRAK

BETAGARRI

HAMLET

HERNANI